

VII. ERANSKINA. –NAFARROAKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO ZIURTAPEN
PROBETAKO AZTERKETA GIDA
C1 MAILA AURRERATUA

1. AZTERKETAREN HELBURUA.

C1 mailako azterketa hau zenbait probaz osaturik dago, zeinak diseinaturik baitaude izangaiek helburu komunikatibo orokorretarako hizkuntza jarduera nagusietan duten gaitasuna ebaluatzeko.

2. KONSTRUKTUAREN DEFINIZIOA.

Hizkuntza eskola ofizialetako C1 mailako ziurtapen probak xede hauetarako diseinatu dira: ebaluatu beharreko hizkuntza erabiltzean ikaslea nola moldatzen den neurtzea; eta ebaluatzea ea zenbateko gaitasuna duen helburu komunikatibo orokorretarako ahozko zein idatzizko testuak ulertzeko, produzitzeko, koproduzitzeko eta prozesatzeko.

Gaitasun probak estu loturik daude arloko adituek ezarri duten komunikaziorako hizkuntza gaitasun orokorraren ereduarekin. Europako Kontseiluak eredu hori onartu du Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan eta Companion Volume argitalpenean. Komunikazioaren ikuspegian oinarriturik, eredu hori hizkuntza jarduerara bideratuta dago, hau da, hizkuntzaren erabilerara. Ulermenean, produkzioan, koprodukzioan eta prozesamenduan xede hizkuntza erabiltzeko gaitasun hori abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuan ere aipatzen da. Mailari dagokionez, probek erreferentzia izanen dituzte, arau orokor gisa, helburu orokorrak eta espezifikoak eta hizkuntza bakoitzaren gutxieneko edukiak, hizkuntza bakoitzaren curriculumean jasotakoak.

Izangaiaren gaitasun orokorraren mailari antzematen zaio egiazko komunikazio egoerak simulatzen dituzten zereginetan bere ezagutzak, trebetasunak eta baliabideak nola erabiltzen dituen ikusita. Komunikaziorako gaitasun hori erakusteko, praktikan jarri behar dira bai hizkuntza gaitasun soila eta bai gaitasun soziokulturalak, soziolinguistikoak, estrategikoak, funtzionalak eta diskurtsiboak ere.

Eredu horren arabera, probek erakutsi behar dute zenbateko gaitasuna duen izangaiak hizkuntza jarduera batzuk ongi egiteko, egiazko komunikazio egoeretan egin behar lukeen bezala. Beraz, ebaluazioan aztertuko da zer prozesatzeko eta ekoizteko gauza den izangaiak komunikazioegoeretan, eta ez soilik zer ezagutza formal dituen hizkuntzari buruz. Hizkuntzaren

sistema formalak zereginetan sartzen dira, izangaiak praktikan nola erabiltzen dituen ikusi ahal izateko.

Konstruktuko orokor horretatik ondorioztatzen dira azterketa proben ezaugarri espezifikoak.

3. MAILAREN DEFINIZIOA.

C1 mailak C1 gaitasun mailaren ezaugarriak izanen ditu, abuztuaren 29ko 68/2018 Foru Dekretuan dagoen definizioaren arabera (2018ko irailaren 13ko Nafarroako Aldizkari Ofiziala).

Maila honen helburua da ikasleak gaitzea eremu pertsonaleko eta publikoko egoera guztietan aritzeko, malgutasun eta zehaztasunez, ageriko ahaleginik gabe, eta hizkuntza-gabeziak erraz gaindituz konpentsazio-estrategien bidez; halaber, ikasleak gaitzen ditu goi mailako ikasketak egiteko, alor akademikoko mintegietan eta proiektuetan ziurtasunez parte hartzeko edo eraginkorki komunikatzeko eremu profesionaleko jardura espezifikoetan.

Horretarako, ikasleek lortu behar dituzte hizkuntza erraztasun, malgutasun, eraginkortasun eta zehaztasun handiz erabiltzea ahalbidetzen duten gaitasunak, ahozko eta idatzizko testu luzeak, egitura konplexukoak eta zehatzak, ulertzeko, bakarrik zein beste batzuekin sortzeko, prozesatzeko eta transmititzeko, alderdi abstraktu zein konkretuetakoak izan, gai orokorreko edo espezializatu buri buruzkoak; nahiz eta norberaren espezialitate kanpokoak izan, hizkuntzaren aldaera batean baino gehiagotan sortuak izan, egitura asko eta konplexuak eta adierazpide espezializatu, idiomatiko eta lagunartekoak dauzkan lexiko-errepertorio zabala izan, eta esanahi-ñabardura sotilak antzeman eta adierazteko moduan.

4. IZANGAIEN BETEBEHARRAK.

- Azterketako ikasgelan eskatutakoan, izangaiak ikastetxeko txartela, NANA, pasaporte edo haien nortasuna frogatzeko beste agiri bat, argazkia duena, aurkeztu beharko dute.
- Izangaiak puntualak izanen dira, eta azterketa-gelan egonen dira deialdiaren ordutegia baino 15 minutu lehenago, deialdiko ordua azterketa egiten hasteko ordua baita.
- Izangaiak bolaluma urdina edo beltza erabiliko dute azterketa egiteko. Arkatzarekin edo ezabatzen ahal den tintarekin idatzitako probak ez dira zuzenduko (irakurle optikoaren orriko erantzunak izan ezik, haiek arkatzarekin betetzen ahal baitira).
- Idazteko materialaz beste tresnarik ezin da eduki mahai gainean.
- Telefono mugikorrak eta beste edozein aparatua elektronikoa itzalita eduki beharko dira une oro. Azterketaren administratzaileek betebeharrak horiek bete daitezela begiratu behar dute, eta bete ezean jarduteko ahalmena dute.

5. AZTERKETAREN EZAUGARRI OROKORRAK.

5.1. Azterketaren zatiak.

– Azterketak bost proba ditu. Proba bakoitzak hizkuntza jarduera bat neurtuko du: testu idatziak ulertzea, ahozko testuak ulertzea, testu idatzien produkzioa eta koprodukzioa, ahozko testuen produkzioa eta koprodukzioa, eta bitartekotza.

PROBA		EGITURA	GUTXIENEZ %50	HAZTAPENA	GAI %65
1.	Testu idatziak ulertzea (CE)	26 item	13 item	%20	
2.	Ahozko testuak ulertzea (CO)	26 item		%20	
3.	Idatzizko produkzioa eta koprodukzioa (EE)	2 zeregin	5 puntu proba bakoitzean	%20	
4.	Ahozko produkzioa eta koprodukzioa (EO)	2 zeregin		%20	
5.	Bitartekotza (MD)	2 zeregin		%20	
GUZTIRA				%100	6,5 p.

– Izangaiek proba guztiak egin ditzakete; izan ere, ezein proba gainditzea ez da baldintza izanen hurrengoak egin ahal izateko.

– Azkeneko emaitza "gai" edo "ez-gai" izanen da. Hizkuntza jarduera bakoitzaren kalifikazioa 10 puntuko eskalan oinarritzen da eta 1 eta 10 bitarteko zenbaki baten bidez adieraziko da, dezimal batekin.

– Ahozko eta idatzizko ulermenetan, 26 itemetatik 13 zuzen erantzunez gero, 10etik 5 puntu lortuko dira. Nota bakoitza kalkulatzeko, item kopurua bider 10/26 egin behar da, eta dezimal batera biribildu. Ez dago penalizaziorik erantzun okerrengatik.

– Azterketa osoa gainditzeko eta, horrenbestez, ziurtagiria lortzeko, beharrezkoa izanen da gutxienez ere 6,5 puntu lortzea batez besteko puntuazio orokorrean. Azkeneko emaitza "gai" izan dadin, ezinbestekoa da hizkuntza jarduera bakoitzaren nota gutxienez ere 5 puntukoa izatea. Gutxienez ere 5 puntu lortzen badira proba batean edo gehiagotan, "gai" kalifikazioa ateratzen ahalko da, baldin eta proba guztien batezbesteko aritmetikoa 6,5 puntu edo gehiago bada. Azkeneko emaitza "gai" edo "ez-gai" izanen da.

– Deialdi arruntean 6,5 puntuko batezbesteko osora iristen ez denak, gutxienez 5eko puntuaziora iritsi ez den hizkuntza jarduera bakoitza erreuperatu behar izateaz gainera, deialdi berezian azterketa egiten ahalko du 6,5eko gutxienez iritsi ez den proba guztietan (gutxienez 17 item zuzen idatziaren eta entzunaren ulermen probetan).

- Izangaia bi deialdietan aurkezten den zati guztietarako, aplikatuko zaion amaierako puntuazioa bietatik onena izanen da.
- Hizkuntza eskola ofizialetako irakasleei dagokie, kasuan kasuko hezkuntza administrazioak ezartzen dituen baldintzetan, C1 tarteko mailako ziurtagiriak lortzeko probak administratzea.
- Azterketa osoa bi saiotan egingen da, idatzizko zati batekin eta ahozko beste batekin, honako taula honetako hurrenkerari jarraituz:

	PROBA	IRAUPENA	
AZTERKETA IDATZIA	Idatzizko bitartekotza (MD)	30´	4h30'
	Testu idatzien produkzioa eta koprodukzioa (EE)	105´	
	ATSEDENALDIA	10´	
	Ahozko testuak ulertzea (CO)	50´	
	Testu idatziak ulertzea (CE)	75´	

	PRUEBA	DURACIÓN	
AHOZKO AZTERKETA	Ahozko bitartekotza (MD)	8' (bikotea)	25´
	Ahozko testuen produkzioa eta koprodukzioa (EO)	17' (bikotea)	

- Zatiak egiteko hurrenkera eta denborak errespetatu beharko dira bai deialdi arruntean bai berezian.
- Antolaketa dela eta, eskola batek edo batzuek beste egun bat paratzen ahalko dute "Testu idatzien produkzioa eta koprodukzioa" eta "Idatzizko bitartekotza" probetarako. Data hori gutxienez 15 egun lehenago jakinaraziko zaie ikasleei.

5.2. Gaiak.

Izangaia ulertu edo sortu beharko dituen testuak gai hauetaz arituko dira:

1. Identifikazio pertsonala.
2. Bidaiak eta oporrak.
3. Etxebizitza, etxea eta ingurua.
4. Osasuna eta gorputzaren zainketa.
5. Eguneroko jarduerak.
6. Enpresa eta merkataritza jarduerak.
7. Elikadura eta jatetxeak.
8. Harreman pertsonalak eta sozialak.
9. Politika eta gizartea.
10. Lana eta lanbide jarduerak.
11. Ondasun eta zerbitzuak.

12. Hezkuntza eta prestakuntza.
13. Klima eta ingurune naturala.
14. Hizkuntza eta komunikazioa.
15. Zientzia eta teknologia.
16. Denbora librea eta aisia.
17. Historia eta kultura.

5.3. Kalifikazioak.

- Ikasleei ziurtapen proben emaitzari buruz emanen zaien informazioak barnean hartuko ditu probaren zati bakoitzeko puntuazioa eta dagokion kalifikazio partziala, bai eta proba osoari dagokion kalifikazio orokorra ere ("gai" edo "ez-gai").
- Egin ez den probaren zati bakoitzak "ez-aurkeztua" kalifikazioa jasoko du. Probaren azken kalifikazioa "gai" edo "ez-gai" izanen da. Izangaiak zatietako bat ere egiten ez badu, bere azken kalifikazioa orokorra "ez-aurkeztua" izanen da.

6. AZTERKETAKO BOST PROBEN EZAUGARRIAK.

6.1. TESTU IDATZIAK ULERTZEKO PROBA (CE).

Izangaiak gauza izan behar du xehetasun osoz ulertzeko, kontzeptuen eta egituraren aldetik konplexuak diren idatzizko testu luze, zehatz eta xehetasunez beterikoen sorta handi batean, testuen zentzu orokorra, funtsezko informazioa, puntu nagusiak, alderdi eta xehetasun garrantzitsuak eta egileen iritzi eta jarrerak, implizituak zein esplizituak, estilo zein erregistro desberdintasunei antzemanaz, baldin zati zailenak berriz irakurtzen ahal baditu. Testuotako gaiak izangaiaren espezializazio eremutik kanpokoak ere izan daitezke.

Probaren formatua: lau zeregin, 26 itemekin guztira, honela banatuak:

ZEREGINA	MIKROTREBETASUNA	TESTU MOTA	PROZEDURA
1. zeregina 6 edo 7 item	–Testu baten ideia nagusiei antzematea. –Testu baten xehetasunei antzematea.	700 hitz arteko testua.	–6/7 galderetako bakoitzari ongien erantzuten diona hautatzea (a/b/c). –Galdera irekiak erantzutea, 6 hitzetan gehienez
2. zeregina 6 edo 7 item	–Iritziak eta jarrerak identifikatzea, bai implizituak, bai esplizituak.	6/7 testu labur edo testu baten beste hainbeste paragrafo (500 hitz, gehienez ere).	6/7 testuak 8/9 enuntziatu edo paragrafoetako batekin lotzea. (2 distraigarri)

3. zeregina 6 edo 7 item	Testuaren egiturari eta/edo zatien arteko loturari antzematea.	700 hitz arteko testua; testu horretatik 6/7 esaldi edo sintagma atera dira.	Hutsuneak dituen testua irakurrita, aukeran diren 8/9 zatien artetik identifikatzea testuaren 6/7 hutsuneei dagozkienak. (2 distraigarri)
4. zeregina 7 edo 8 item	Testuko elementuak aurreratzea, testuinguruaren arabera.	400 hitz arteko testua; horretatik 7/8 hitz atera dira.	–Hutsuneak dituen testua irakurrita, 20 aukeraren artetik hautatzea hutsune bakoitzari dagokiona. (11/12 distraigarri + adibidea) –Hutsuneak dituen testua irakurrita, hutsune bakoitzerako aukera egokia hautatzea (a/b/c).

6.2. AHOZKO TESTUAK ULERTZEKO PROBA (CO).

Izangaiak gauza izan behar du xehetasun osoz ulertzeko, kanala edozein delarik eta entzuteko baldintzak onak ez direnean ere, ahozko testu luze, zehatz eta xehetasunez beterikoen sorta handi batean, testuen asmo eta zentzu orokorra, funtsezko informazioa, puntu nagusiak, alderdi eta xehetasun garrantzitsuak eta hizlarien iritzi eta jarrerak, inplizituak zein esplizituak, askotariko doinu, erregistro eta estiloetan, baita hiztunak azkar ahoskatzen duenean eta kontzeptu-erlazioak berariaz seinalaturik ez daudenean ere, baldin xehetasunen batzuk berresteko modua badu, batez ere hiztunaren doinura ohituta ez badago.

Probaren formatua: 4 zeregin 26 itemekin, honela banatuta:

ZEREGINA	MIKROTREBETASUNA	TESTU MOTA	PROZEDURA
1. zeregina 7 edo 8 item	- Ideia nagusiak ulertzea. - Testu baten xehetasunak ulertzea. - Iritziak eta jarrerak identifikatzea, bai inplizituak, bai esplizituak.	7/8 testu labur, guztira 4 minutu artekoak.	7/8 testuetako bakoitza dagokion epigrafearekin lotzea, proposatutako 9/10 epigrafeen artetik. (2 distraigarri).
2. zeregina 6 edo 7 item		Testu bat edo 3 testu labur, guztira 6 minutukoak.	Galdera edo enuntziatu bakoitzerako aukera zuzena hautatzea, emandako hiruren artetik (a/b/c).
3. zeregina 6 edo 7 item		Argi bereizten diren bi hiztunen arteko solasaldia, elkarrizketa edo eztabaida, 3 minutu artekoa.	Galdera edo enuntziatu bakoitzerako aukera egokia hautatzea (a/b/c).
4. zeregina 6 edo 7 item		Testu bat, 4 minutukoa gehienez.	–Galdera bakoitzerako edo esaldiaren hutsune bakoitzerako aukera zuzena hautatzea (a/b/c). –Galdera irekiak erantzutea (6 hitzetan gehienez).

6.3. TESTU IDATZIAK PRODUZITZEKO ETA KOPRODUZITZEKO PROBA: IDAZMENA (EE).

Izangaiak gauza izan behar du bakarka edo beste norbaitekin sortzeko, euskarria edozein dela ere, idatzizko luze eta xeheak, ongi antolatuak eta jarduketa eremu bakoitzari egokituak, eremu horietako gai konplexuei buruz. Ideia nagusiak azpimarratu behar ditu, bere ikuspuntuak zabalago azaldu eta defendatu –ideia osagarriak, zergatiak eta adibide egokiak emanez– eta, bukatzeko, ondorio egoki bat eman. Horretarako, zuzen eta taxuz erabili behar ditu egitura gramatikal konplexuak eta ortografiaren, puntuazioaren eta testuen aurkezpeneko konbentzio konplexuak, erakutsiz kohesiorako mekanismo konplexuen kontrola duela eta lexiko joria menderatzen duela, halako moldeaz, non esanahiaren ñabardurak adierazten ahal dituen, ironia, umorea eta zama afektiboa barne.

6.3.1. Probaren formatua.

	IDATZIZKO KOPRODUKZIOA	IDATZIZKO PRODUKZIOA
Testu mota	- Gutun edo posta elektronikoko mezu pertsonala, edo foro batean parte hartzea. - Gutun edo posta elektronikoko mezu formala, erakunde publiko edo pribatu bati zuzendua, non, adibidez, erreklamazio bat egiten den.	Argudiatzeko artikulua, txostena, aurkezpen baten memoria, etab.
Helburu komunikatiboa	Testu argia, xehetasunez betea eta zehatza egitea, eta hartzaileekiko harremanetan malgu eta eraginkor jokatzeko, hizkera emozionala, hitz-erdiakoa eta umorezkoa erabiliz. Testu behar bezain zuzen eta formalak egitea demanda, erreklamazio eta eskaera konplexuetan, informazio zehatza emanez eta argudio sendoak baliatuz jarreraren alde edo aurka.	Ikuspuntuak azaldu eta adieraztea edota argudioak ematea, ideia nagusiak azpimarratuz eta haietan sakonduz ideia osagarrien bidez, arrazoi eta adibide egokiak baliaturik, eta konklusio egoki batekin bukatzea.
Luzera	120-150 hitz	250-280 hitz
Denbora	105 minutu	
Puntuazioa	10 puntu	10 puntu

Izangaiak sortu beharreko testuak eguneroko gai orokorreko buruzkoak izanen dira (C1 mailako curriculumean bilduak, abuztuaren 29ko 68/2018 Foru Dekretuan).

6.3.2. Idazmena ebaluatzeko irizpideak.

a) Eraginkortasun komunikatiboa.

Ebaluatzen du ea izangaiak eraginkortasunez erantzuten dion komunikazio egoerari eta ongi lotzen zaion zereginari. Alegia:

– Ezarritako helburu komunikatiboa betetzen duen eta eraginkortasunez adierazten duen esan nahi duena: ezarritako eginkizunak (informatzea, eskatzea, etab.) betetzen dituen eta nahi bezalako eragina sortzen duen hartzailearengan. Zeregina betetzeko moduari buruzko inpresio orokorra positiboa den.

–Arau sozial eta diskurtsiboak errespetatzen dituen, testu motaren arabera (kontakizuna, deskribapena, argudiatzea, etab.), bai eta bakoitzerako testu formatu egokiak ere.

–Hizkera eta erregistro egokiak erabiltzen dituen, bai eta kortesia eta adeitasunezko estrategiak ere, hala dagokionean.

–Zeregina betetzeko jarraibideei lotzen zaien: ezarritako luzera betetzen duen, puntu guztiak garatzen dituen gidalerroei jarraituz, eta proposatutako gaiari buruz informazio nahikoa eta eduki jakingarriak eskaintzen dituen.

b) Koherentzia eta kohesioa.

Ebaluatzen du ea izangaia gauza den testu koherentea, ulerterraza eta kohesioduna sortzeko. Alegia:

– Informazio adierazgarria eta ia anbigutasunik gabea ematen duen. Testua irakurteraza den.

– Informazioa eta argudioak ongi antolatzen dituen: ideia orokorra eta ikuspuntua ongi bereizita.

- Diskurtsoaren hariari eusten dion, errepikapenak eta jauzi edo etenak saihestuz. Gai edo ikuspuntu desberdinen arteko trantsizioak baliatzen dituen.

–Ongi erabiltzen dituen paragrafoak, puntuazio zeinuak eta lokailuak. Ideiak ongi josita dauden paragrafo eta perpausen artean.

–Egokitasunez erabiltzen dituen kanpoko erreferentzia mekanismoak (espaziokoak, denborakoak) eta barnekoak (izenordainak, adberbioak, aditz denborak, komunztadura, etab.).

c) Errepertorio lexikoa.

Izangaiak erabilitako hiztegiaren zabaltasuna eta konplexutasuna ebaluatzen ditu, maila honetan zer eskatzen den kontuan izanda. Alegia:

–Ea zehaztasunarekin erabiltzen duen maila honetako lexikoa, kolokazioak naturalak diren, etab.

–Lexiko zabala eta egokia erabiltzen duen: gaiarekin zerikusia duen hiztegia, sinonimoak, askotariko lokailuak, adierazpideak edo bestelako baliabide estilistikoak, etab.

d) Hizkuntzaren zuzentasuna.

Izangaiak erabiltzen duen hizkuntza kodearen doitasun edo zehaztasuna ebaluatzen du, maila honetan zer eskatzen den kontuan izanda. Alegia:

–Ea zuzen erabiltzen dituen ortografia, morfologia eta sintaxia.

–Ea egitura sintaktiko eta gramatikal ugari erabiltzen dituen, askotarikoak eta halako konplexutasun bat dutenak.

6.4. AHOZKO TESTUAK PRODUZITZEKO ETA KOPRODUZITZEKO PROBA: MINTZAMENA (EO).

Izangaiak gauza izan behar du bakarka edo beste norbaitekin sortzeko, etorri eta berezkotasunez eta ia ahaleginik gabe, kanala edozein dela ere, mota askotako ahozko testu luze, argi eta xeheak, kontzeptuen eta egituraren aldetik konplexuak, hainbat erregistrotan. Horretarako, intonazio eta azentu egokiak erabili behar ditu esanahiaren ñabardurak adierazteko, eta erakutsi mota askotako baliabide linguistikoak eta estrategiak –estrategia diskurtsiboak, interakziokoak eta konpentsaziokoak– menderatzen dituela, halako moldez non ia ez diren nabaritzen esan nahi duena adierazteko noizbehinka dituen zailtasunak, eta diskurtsoa eraginkortasunez egokitzen ahal duen egoera komunikatibo bakoitzera.

6.4.1. Probaren formatua.

– Proba bikoteka edo hirunaka egingen da, bi aztertzailearen aurrean, eta grabatu egingen da. Izangai bakarra badago, aztertzaileetako batek bikotekidearen rola jokatu du koprodukzio lanerako.

– Txanda iristen denean, aztertzaile batek deituko die proba egingen den gelan sar daitezen. Ahozko bitartekotza ere saio berean egingen da, gida honen 5.1 puntuko tauletan adierazi den moduan.

	AHOZKO PRODUKZIOA	AHOZKO KOPRODUKZIOA
Zeregina	Hautatutako gaiari buruz hitz egitea, eta zenbait galderari erantzutea. Galdera horiek gai hori izangaiaren iritzi pertsonalarekin, esperientziarekin eta munduari buruzko ikuspegiarekin lotuko dute.	Enuntziatu batek zedarritutako gai baten zenbait alderdi eztabaidatzeko solasaldiari ekitea.
Helburu komunikatiboa	Norberaren ikuspuntuak, esperientziak eta iritzia adieraztea, modu argi eta eraginkorrean.	Norberaren ideiak eta iritzia ziurtasunez adieraztea, solaskidearen jardunari jarioz, bat-batean eta egokitasunez erantzutea eta diskurtsoari eusten laguntzea.
Euskarria	Txartel bat, aztertu beharreko gaiarekin eta harekin lotutako 3 galderarekin.	Txartel bat, gai orokor batekin eta gai horren gainean landu beharreko 3 edo 4 enuntziaturekin.*
Prestaketa	1 min	2 min (aldi berean baina banaka)

Ahozko azalpena	3-4 min	Bikoteek 5-6 min, hirukoteek 8-9 min
2 izangai	9 min	8 min (hirukoteek 11 min)
Proba, guztira	17 min (hirukoteek 20 min)	

* Ez dago puntu guztiak eztabaidatu beharrik.

Bi zereginetarako prestaketa proba eginen den ikasgela berean eginen da, aztertzaileen aurrean.

6.4.2. Fase bakoitzaren deskribapena.

a) HARRERA.

- Aztertzaileak esanen die izangaiei non eseri behar diren, eta eskatuko die beren burua identifikatzeko argazkia daukan dokumentu baten bidez.
- Aztertzaileak galdetuko die bertaratu direla justifikatzen duen agiririk behar ote duten (hasi baino lehen edo amaitzean).

b) AHOZKO PRODUKZIOA.

- Aztertzaileak ahoz azalduko ditu jarraibideak, eta bi euskarri emanen dizkio A izangaiari. Euskarri bakoitzak landuko den gaia jasoko du, baita hiru galdera ere, ahozko ekoizpena egiteko oinarri izanen dena hauta dezan.
- Izangaiak minutu bat izanen du gaia aukeratzeko eta bere jarduna prestatzeko.
- A izangaiak, lehenik hitz egin behar duenak, ahozko produkzioa garatuko du, erantzun landuak emanez euskarriko hiru galderei.
- A izangaia 3 edo 4 minutuz arituko da solasean, eta bitartean aztertzaileek eskatzen ahalko diote bere iritziak justifika ditzala edo argi gelditu ez den alderdiren bat gara dezala.
- A izangaiak ahozko produkzioa amaitu eta gero, aztertzaileak B izangaiari beste bi euskarri emanen dizkio bere ahozko produkzioa prestatzeko, eta lehengo urratsak errepikatuko dira.

c) AHOZKO KOPRODUKZIOA.

- Aztertzaileak jarraibideak emanen dizkie bi izangaiei, ahoz, eta azalduko die 2 minutu dauzkatela prestatzeko (aldi berean baina bakarka).
- Aztertzaileak euskarri bana emanen die. Euskarri hori txartel bat izanen da, eta han azalduko dira solasaldiaren nondik norakoak: gai bat eta eztabaidatzeko hiru edo lau enuntziatu. Ez dago enuntziatu guztiak eztabaidatu beharrik.
- Prestatzeko denbora amaituta, aztertzaileak adieraziko du nor hasiko den hizketan (A izangaia).
- Bi izangaiak elkarriketa bat izanen dute, euskarrian proposatzen den gaiari buruzko iritziak trukatzeko. Izangai bakoitza zereginaren denboraren erdian parte hartzen saiatuko da. B izangaiak bukatuko du elkarriketa.

–Izangaien elkarrekintzak 5-6 minutu iraunen du eta bitartean aztertzaileek ez dute hitz eginen, egoera hauetan izan ezik: i) komunikazioa eteten bada; ii) solasa eskatutakoarekin bat ez badator edo iii) ez badira nahikoa mintzatzen.

6.4.3. Mintzamina ebaluatzeko irizpideak.

a) Eraginkortasun komunikatiboa.

Ebaluatzen du ea izangaiak eraginkortasunez erantzuten dion komunikazio egoerari eta ongi lotzen zaion zereginari. Alegia:

PRODUKZIOKO ZEREGINEAN:

- Ea eraginkortasunez adierazten duen esan nahi duena. Diskurtsoaren hariari zailtasunik gabe jarraitzen zaion, informazio argia ematen duen eta ia batere anbiguotasunik ez dagoen.
- Zereginari egokitzen zaion: ezarritako denbora betetzen duen, puntu guztiak garatzen dituen gidalerroei jarraituz, eta proposatutako gaiari buruz informazio nahikoa eta eduki jakingarriak eskaintzen dituen.
- Berezkotasunez erantzuten duen, ia zalantzarik egin gabe. Diskurtso jarraitua egiten duen, erritmo naturalean.

KOPRODUKZIOKO ZEREGINEAN:

- Ea naturaltasun, malgutasun eta eraginkortasunez parte hartzen duen interakzioan: aktiboki jarduten duen igortzaile eta hartzaile gisa, solasaldiaren nondik norakoari moldatuz, eta egokitasunez erantzuten duen, eduki jakingarria eskainiz.
- Egoki erabiltzen dituen hitz egiteko txandak (intonazioa, diskurtsoaren markatzaileak, etab.) eta baliatzen elkarlaneko estrategiak (adeitasuna, laguntza, ulertu izana erakustea, argibideak eskatzea, etab.) eta komunikazioaren norabidea aldatzekoak (gai aldaketa negoziatzea, etab.), eta bere ideiak trebetasunez lotzen dituen beste hiztunen ideiekin (adostasuna edo desadostasuna agertzea, argudiatzea, etab.).

b) Lexikoaren aberastasuna.

Erabilitako hiztegiaren zabaltasuna eta konplexutasuna ebaluatzen ditu. Alegia:

Lexiko joria, askotarikoa eta zehatza erabiltzen duen zeregina egiteko: gaiarekin zerikusia duen hiztegia, sinonimoak, hain ohikoak ez diren hitzak, eta adierazpide idiomatikoak edo bestelako baliabide estilistikoak.

c) Kontrol fonologikoa.

Soinuen ahoskera, azentuazioa, erritmoa eta intonazioa ebaluatzen ditu. Alegia:

– Ea soinuaren ahoskeran ez den gehiegi urruntzen estandarretik eta gauza den soinu multzoak zuzen artikulatzeko.

- Hitzei zuzen jartzen dien azentua.
- Hitzak adiera-unitateetan multzokatzen dituen eta esaldiaren erritmoari eusten dion.
- Intonazioa erabiltzen duen informazioari ñabardurak eranstea.

d) Zuzentasun gramatikala.

Gramatikaren erabileraren doitasuna edo zehaztasuna ebaluatzen du. Alegia:

- Ea zuzen erabiltzen dituen morfologia eta sintaxia.
- Zeregina egiteko beharrezkoak diren egiturak erabiltzen dituen.

6.5. BITARTEKOTZA PROBA: idatzizko bitartekotza eta ahozko bitartekotza.

Bitartekotza probak bi zeregin izanen ditu eta guztira 20 puntu balioko du. Lehenengoa, idatzizko bitartekotza, azterketa idatziaren saioan egingen da, eta bigarrena, ahozko bitartekotza, ahozko azterketaren egunean egingen da.

6.5.1. IDATZIZKO BITARTEKOTZA.

- Izangaiak gauza izan behar du iturri batetik eta bestetik hartutako askotariko ahozko testuetan (esate baterako, hedabideetako testuak, mota bateko eta besteko testu akademikoak, txostenak edo agiri profesionalak) dauden informazioa, iritziak eta argudioak idatziz emateko, testu berri eta koherente batean, haiek parafraseatuz edo laburtuz.
- Idatzizko bitartekotza probaren ezaugarriak eta formatua.

Helburua	Posta elektronikoko mezu bat idaztea edo foro batean parte hartzea, eta, bertan, mezu bat transmititzea, laburbiltzea, azaltzea eta kontsignan deskribatutako hartzaile batek planteatzen duen arazoari egokitzea.
Euskarria	Zereginaren testuinguruaren azalpena eta testua 2. hizkuntzan, C1 maila baino maila txikiagoan, 400 hitz artekoa, transmititu beharreko informazioarekin.
Luzera	140-170 hitz
Denbora	30 min
Puntuazioa	10 puntu

6.5.2. AHOZKO BITARTEKOTZA.

Izangaiak gauza izan beharko du iturri batetik eta bestetik hartutako askotariko testu idatzi luze eta zehatzetan (esate baterako, saiakera-testuetan edo hitzaldietan) dauden informazioa, iritziak eta argudioak ahoz emateko, testu berri eta koherente batean, haiek parafraseatuz edo laburtuz.

Ahozko bitartekotza probaren ezaugarriak eta formatua:

- Deialdi arruntean, ahozko bitartekotza proba banaka egingen da ahozko azterketaren saioan, ahozko testuak produzitzeko eta koproduzitzeko probaren aurretik.
- Deialdi berezian, ahozko bitartekotzako zeregina eta ahozko testuak produzitzeko eta koproduzitzeko proba egiteko hurrenkera izangaiak egiteko dituen proben mende egonen da.

Helburua	Gai beraren alderdi desberdinei buruzko testu idatzi batean edo bitan dauden informazio, iritzi eta argudioak ahozko testu berri eta koherente batera aldatzea.
Euskarria (bi gairen artean aukeratzekoa)	DIN A4 neurriko orria, jarraibideekin eta oharrek idazteko tartearekin. DIN A4 neurriko orria, 2. hizkuntzan idatzitako testu batekin edo birekin (gehienez 500 hitz).
Prestaketa	10 minutuko prestaketa, beste ikasgela batean.
Bitartekotza	3-4 min
Puntuazioa	10 puntu

6.5.3. Ahozko bitartekotza ebaluatzeko irizpideak.

a) Edukiaren interpretazioa.

Ebaluatzen du ea izangaiak kontsigna egokitasunez interpretatzen duen eta helburu komunikatiborako (hartzailea eta testuingurua) adierazgarria den informazioa identifikatzen eta aukeratzen duen.

b) Testuaren antolaketa.

Ea ongi antolatuta dagoen transmititutako informazioa (edo prozesatutako testua): koherentea eta erraz jarraitzeko modukoa den.

c) Informazioa transmititzea.

Ebaluatzen du ea izangaiak helburu komunikatiborako garrantzi handiena duen informazioa transmititzen duen, argitasunez eta eraginkortasunez transmititu ere, alegia:

- Zuzen prozesatzen duen testua: informazio, ideia edota datuak modu nahiko egokian transmititzen, laburbiltzen, parafraseatzen, konparatzen edo azaltzen dituen. Sortutako testua ez dagoen hitzez hitz hartuta testu-euskarritik.
- Ea estrategia egokiak aukeratzen dituen informazioa transmititzeko, proposatutako bitartekotza-egoeraren arabera, eta informazio hori modu nahiko eraginkorrean ulertarazten duen.

d) Hizkuntzaren zuzentasuna.

Ebaluatzen du ea izangaiak, maila honetarako, nahiko egoki erabiltzen duen hizkuntza kodea informazioaren transmisioan. Hau da, ea egokitasunez erabiltzen duen halako hitz sorta bat eta nahiko zuzen erabiltzen dituen maila honi dagozkion egiturak.

Ahozko bitartekotzan, ahoskeraren zuzentasuna eta naturaltasuna ere ebaluatzen dira.

7. AZKENEKO OHARRAK.

7.1. Emaizten argitalpena.

Proben emaitzak argitara emanen dira datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen legerian ezarritakoa betez.

Ikasleei ziurtapen proben emaitzari buruz emanen zaien informazioak barnean hartuko ditu probaren zati bakoitzeko puntuazioa eta dagokion kalifikazio partziala, bai eta proba osoari dagokion kalifikazio orokorra ere.

7.2. Erreklamazioak egiteko eskubidea.

Ikasleek, edo, hala behar denean, haien tutore edo legezko ordezkariak, beren probei eta emaitzei buruzko informazioa jasotzen ahalko dute ebaluazioaren ardura duten irakasleen aldetik, ikastetxean horretarako ezarritako egunean. Egun horretan bertaratzerik ez badute, beste egun batean egiteko eskatzen ahalko dute idatziz.

Irakasleak argibideak eman ondoren, lortutako azken kalifikazioarekin ados ez badaude, ikasleek, edo, hala behar denean, haien tutore edo legezko ordezkariak, ikastetxeko zuzendaritzari eskatzen ahalko diote, idatziz, berrius dezala ziurtapen probaren zati batean edo batzuetan lortutako kalifikazioa. Lortutako kalifikazioak berrikusteko eskaera horiek hiru egun balioduneko epean aurkeztuko dira, azken kalifikazioa argitaratzen den egunetik hasita. (Hots, azterketaren berrikuspenaren egunetik hasita).

Erreklamazioa jaso ondoren, ikastetxeko zuzendariak erreklamazio espediente bat irekiko du. Kasuan kasuko hizkuntzaren departamentuak (erreklamazioa jarri zaien irakasleak bazter utzita), zuzendariak eskaturik eta erreklamazioa aurkeztu ondoko lehenengo egun baliodunean, erreklamazioa aztertuko du. Egiaztatuko du proba guztiak ebaluatu direla eta ezarritako ebaluazio irizpideak ongi aplikatu direla, eta ziurtatuko du ez dela akatsik egin probaren zati bakoitzeko kalifikazioaren eta azken kalifikazioaren kalkuluan, eta txostena egingen du.

Txostenak ikasketaburuari helaraziko zaizkio, eta hark, ahal den era eta epe azkarrenean, txostenaren kopia emanen dio ikasleari edo, hala behar denean, ikaslearen tutore edo legezko ordezkariari, PDF formatuko kopia bat igorritik haren helbide elektronikora. Gainera, mezua bidaliko zaio mugikorrera, jarri duen erreklamazioaren erantzuna bidali diotela jakinarazteko. Honela bukaera emanen zaio ikastetxean erreklamatzeko prozesuari.

Ikastetxearen ebazpenaren kontra gora jotzeko errekurtsioa paratzen ahalko da, Hezkuntzako zuzendari nagusiari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Artikulu honetan aurreikusitako jarduketa guztiak desgaitasunen bat duten pertsonentzat irisgarriak izatea bermatuko da.

7.3. Berriazko premiak dituzten pertsonentzako egokitzapena.

Proba egokitzen ahalko da mugitzeko desgaitasuna, ikusteko desgaitasun erabatekoa edo partziala, mintzamenaren nahasmenduak, entzumen galera edo desgaitasun bat baino gehiago duten izangaien behar berezietarako.

Egokitzapenen bat behar duten ikasleek beren beharrak adierazi beharko dituzte ikasketaburuari zuzendutako idazki batean, eta desgaitasuna eta haren gradua egiaztatzen dituen

ziurtagiria aurkeztuko dute behar horiek justifikatzeko. Eskaerak matrikula egitean aurkeztuko dira.

Baldintzak egokitzeak ez du inoiz ekarriko probaren zatiren bat egin behar ez izatea edo proba deialdi ofizialekoa ez beste egun batean egin ahal izatea.

7.4. Bertaratze agiriak.

Izangaiek azterketa egin izana frogatzeko agiria eska dezakete.

7.5. Elkarbizitzaren aurkako portaerak.

Azterketa, proba edo ariketa batean beste ikasle batzuei kopiatzea edo kopiatzen uztea elkarbizitzaren aurkako portaera da, eta berekin ekarriko du, abuztuaren 23ko 47/2010 Foru Dekretuaren arabera, azterketa, proba edo ariketa horretan kalifikazio negatiboa jasotzea.

8. AHOLKUAK.

- Bete itzazu une oro azterketaren administratzaileen jarraibideak.
- Lasai egon zaitez eta proba egiteko jarraibideei arretaz erreparatu, batez ere ahozko ulermenaren ariketan.
- Zereginak egiteko duzun denbora egoki banatu. Denbora horiek probaren zati guztiak egiteko aski dira, aurretik kalkulatu baitira. Gomendagarria da azkenean minutu batzuk gordetzea azterketa errepasatu eta izan litezkeen akatsak zuzentzeko.
- Idazmenaren zatiko zereginei heldu baino lehen, gomendagarria da esan nahi duzunaren eskema bat egitea aurretik eta, zereginak bukatutakoan, dena errepasatzea.
- Probaren zati guztietan letra argiz idatzi eta azterketa txukun aurkeztu. Zuzentzat hartu dituzun erantzunak zeintzuk diren garbi gelditu dela ziurtatu.



IDATZIZKO PRODUKZIOA		C1	IDATZIZKO KOPRODUKZIOA
ERAGINKORTASUN KOMUNIKATIBOA			
2,5	☐ Erabat lotzen zaie testu motaren konbentzioei. ☐ Informazio nahikoa, erabat adierazgarria ematen du.		2,5
2	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		2
1,5	☐ Oro har testu motaren konbentzioei lotzen zaie, nahiz eta akatsen bat egin formatuan, erregistroan edo informazioaren banaketa tipikoan. ☐ Informazio nahikoa ematen du eta gehiena adierazgarria da.		1,5
1	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		1
0,5	☐ Akats nabarmenak egiten ditu testu motaren konbentzioetan. ☐ Informazio gutxi edo informazio hutsala ematen du, baliteke zeregina gaizki ulertu izana.		0,5
KOHERENTZIA ETA KOHESIOA			
2,5	☐ Diskurtso ildo argia erakusten du, testuari batasun nabarmena emanez. ☐ Eraginkortasunez erabiltzen ditu askotariko lokailuak, kohesiorako mekanismoak eta antolaketa egiturak, hala paragrafoaren barnekoak nola testu atalen artekoak.		2,5
2	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		2
1,5	☐ Diskurtsoaren hariari erraz antzematen zaio, inkoherentziaren bat gorabehera. ☐ Informazioa ongi antolatzen du, kohesiorako mekanismoak egokitasunez erabiliz, nahiz eta tarteka zehaztugabetasunen bat agertu.		1,5
1	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		1
0,5	☐ Diskurtsoaren haria koherentzia edo argitasun urrikoa da. ☐ Kohesiorako mekanismo oso sinpleen bidez antolatzen du testua, edo ez ditu egokiro erabiltzen kohesiorako mekanismoak.		0,5
ERREPERTORIO LEXIKOA			
2,5	☐ Hiztegi zabal eta zehatza erabiltzen du, zuzentasun, zehaztasun eta doitasun handiz jardutea ahalbidetzen diona. ☐ Zehaztugabetasunak oso bakanak dira, eta ez diote eragiten komunikazioari.		2,5
2	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		2
1,5	☐ Egokitasunez erabiltzen du eguneroko hitzen eta ez hain ohikoen sorta bat, zehaztasunez jarduteko; zehaztugabetasunen batzuk egiten ditu, baina ez diote eragiten komunikazioari. ☐ Diskurtsoa osatzeko hizkuntza-elementu egokienak aukeratzen ditu.		1,5
1	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		1
0,5	☐ Eguneroko halako hitz sorta bat erabiltzen du egokitasunez, baina ez du zehaztasunik, edo komunikazioa oztopatzen duten zehaztugabetasunak eta errepikapenak egiten ditu. ☐ Hizkuntza errepertorio mugatua erabiltzen du, naturaltasun edo zehaztasun urrikoa edota errepikakorra.		0,5
HIZKUNTZAREN ZUZENTASUNA			
2,5	☐ Zuzen erabiltzen ditu zeregina burutzeko beharrezkoak diren egiturak, bai konplexuak bai oinarrizkoak.		2,5
2	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		2
1,5	☐ Nahiko zuzen erabiltzen ditu oinarrizko egiturak eta egitura konplexu batzuk. ☐ Akatsak egiten ditu, baina ez dute komunikazioa eragozten.		1,5
1	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		1
0,5	☐ Zuzen erabiltzen ditu hizkuntzaren oinarrizko egiturak. ☐ Akats nabarmenak egiten ditu egitura konplexuagoetan, nahiz eta antzematen ahal zaion zentzuari.		0,5
0	Ez du betetzen zereginaren helburu komunikatiboa. Ia ez du informaziorik ematen, edo edukia erabat hutsala da.		0
	GUZTIRA	IDATZIZKO PRODUKZIOA ETA KOPRODUKZIOA, GUZTIRA _____ /20	GUZTIRA



AHOZKO PRODUKZIOA		C1	AHOZKO KOPRODUKZIOA
ERAGINKORTASUN KOMUNIKATIBOA			
2,5	☐ Berezkotasunez erantzuten du, ia zalantzarik egin gabe, diskurtso jarraituarekin eta erritmo naturalean. ☐ Galderei erantzutean informazio adierazgarria, landua eta koherentea ematen du.	☐ Modu aktiboan parte hartzen du elkarrizketan, ideia azpimarragarriekin. ☐ Bere ikuspuntuak defendatzen ditu eta solaskidearen ekarpenak kontuan hartzen ditu eztabaidan parte hartzerakoan. ☐ Ongi erabiltzen ditu elkarrekintzarako estrategiak: pentsatzeko denbora irabazteko baliabideak, interesa agertzea, argibideak eskatzea, ulertu duela erakustea. ☐ Haren solasaldiak landuak dira, etorri eta berezkotasunarekin hitz egiten du.	2,5
2	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		2
1,5	☐ Aski berezkotasunarekin erantzuten du, nahiz eta zenbaitetan zalantza egiten duen diskurtso jarraitua egitean, eta erritmoa ez den naturala. ☐ Galderei erantzutean informazio adierazgarria eta koherentea ematen du, baina ez oso landua.	☐ Ideia azpimarragarriekin parte hartzen du elkarrizketan. ☐ Bere ikuspuntuak defendatzen ditu eta solaskidearen ekarpenak kontuan hartzen ditu, nahiz eta nolabaiteko laguntza behar duen eztabaidan parte hartzerakoan. ☐ Ongi erabiltzen ditu elkarrekintzarako estrategiak: pentsatzeko denbora irabazteko baliabideak, interesa agertzea, argibideak eskatzea, ulertu duela erakustea. ☐ Aski berezkotasun eta etorriarekin aritzen da, zalantza bat izan badezake ere.	1,5
1	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		1
0,5	☐ Denbora behar du erantzuteko, edo kosta egiten zaio esaldi landuak sortzea eta ez du jariorik. ☐ Informazioa ematen du, baina ez da beti adierazgarria edo argia.	☐ Behin eta berriz solaskidearen jardunean oinarritzen da elkarrizketan parte hartzeko. ☐ Mugaturik erabiltzen ditu elkarrekintzarako estrategiak: pentsatzeko denbora irabazteko baliabideak, interesa agertzea, argibideak eskatzea, ulertu duela erakustea. ☐ Ez ditu gehiegi lantzen bere ekarpenak edo ikuspuntuak. ☐ Haren zalantzek elkarrizketa oztopatzen dute.	0,5
LEXIKOAREN ABERASTASUNA			
2,5	☐ Hiztegi zabala erakusten du, bide ematen diona bere ikuspuntua zehaztasunez azaltzeko, itzulingururik gabe.	☐ Erakusten du ongi kontrolatzen dituela hiztegi orokorra eta adierazpide idiomatikoak eta lagunartekoak. ☐ Egoki erabiltzen ditu jarrera azaltzen duten adierazpideak, lelo, betegarri eta abarrekoak, bere ikuspuntua zehaztasunez eta itzulingururik gabe adierazi ahal izateko.	2,5
2	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		2
1,5	☐ Erakusten du badakiela halako hitz sorta bat, bere ikuspuntua nahiko zehatz azaltzea ahalbidetzen diona, nahiz eta zaila gerta dakioken zenbait ideia konplexu adieraztea.	☐ Erakusten du ongi kontrolatzen dituela hiztegi orokorra eta adierazpide idiomatikoak eta lagunarteko batzuk. ☐ Egoki erabiltzen ditu jarrera azaltzen duten adierazpideak, lelo, betegarri eta abarrekoak, bere ikuspuntua zehaztasunez adierazi ahal izateko, nahiz zaila gerta dakioken zenbait ideia adieraztea.	1,5
1	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		1
0,5	☐ Hiztegi mugatua erabiltzen du, mezua transmititzeko nahikoa ez dena, edo zehaztugabetasun lexikoak eta beste hizkuntza batzuen interferentziak ditu, komunikazioa zailtzen dutenak. ☐ Mezua sinplifikatu beharra dauka baliabide lexikoen ezagatik.		0,5
KONTROL FONOLOGIKOA			
2,5	☐ Soinuak eta hitzak argi eta naturaltasunez ahoskatzen ditu. ☐ Intonazioa aldatzen du eta zuzen kokatzen duen hanpadura informazioari ñabardurak gehitzeko.		2,5
2	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		2
1,5	☐ Soinu guztiak nahiko ongi ahoskatzen ditu eta akatsak egiten dituen bere burua zuzentzen du, nahiz eta hitzen bat edo beste gaizki ahoskatu. ☐ Intonazioa alda dezake eta zuzen kokatu hanpadura informazioari ñabardurak gehitzeko. Zenbaitetan ez du azentuazioa edo intonazioa zuzen egiten, baina horrek ez dio eragiten diskurtsoaren ulergarritasunari.		1,5
1	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		1
0,5	☐ Akats sistematikoak egiten ditu soinuak edo hitzak ahoskatzean. ☐ Azentuazioan eta intonazioan 1. hizkuntzaren edo beste hizkuntza batzuen eragin nabarmena du.		0,5
ZUZENTASUN GRAMATIKALA			
2,5	☐ Naturaltasunez eta zuzentasun handiz erabiltzen ditu helburu komunikatiborako egitura egokiak.		2,5
2	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		2
1,5	☐ Kontrol gramatikal ona erakusten du, nahiz eta tarteka akatsak egiten dituen edo egiturak hautatzean naturaltasuna falta zaion.		1,5
1	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		1
0,5	☐ Egitura zuzenak baina oinarri-oinarritzkoak erabiltzen ditu, edo akatsek produkzioaren kalitatea kaskartzen dute.		0,5
	TOTAL	TOTAL PRODUCCIÓN Y COPRODUCCIÓN ORAL ____/ 20	TOTAL



AHOZKO BITARTEKOTZA		C1	IDATZIZKO BITARTEKOTZA
EDUKIAREN INTERPRETAZIOA			
2,5	☐ Sarrerako testuaren informazioa eta argudio adierazgarriak identifikatzen eta hautatzen ditu eta berak sortutako testu argi eta ongi egituratuan txertatzen ditu.		2,5
2	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		2
1,5	☐ Helburu komunikatiborako adierazgarriena den informazioa identifikatzen eta hautatzen du.		1,5
1	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		1
0,5	Hautatzen duen informazioa ez da beti adierazgarria helburu komunikatiborako.		0,5
TESTUAREN ANTOLAKETA			
2,5	☐ Informazioa modu koherentean antolatzen eta birformulatzen edo azaltzen du, hartzaileari mezua argitzeko edo ulergarriago egiteko.		2,5
2	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		2
1,5	☐ Informazioa antolatzen eta birformulatzen du, hartzaileari mezua argitzeko edo ulergarriago egiteko, baina sarrerako testuaren egiturari eta letrari jarraitzen die.		1,5
1	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		1
0,5	☐ Hitzez hitz errepikatzen ditu sarrerako testuaren zatiak, helburu komunikatiborako garrantzirik gabekoak izan arren, eta informazioa erredundantea da.		0,5
INFORMAZIOAREN TRANSMISIOA			
2,5	☐ Informazioa argi eta zehatz transmititzen du, haren alderdiak baloratzen ditu eta puntu garrantzitsuenak nabarmentzen ditu. ☐ Eraginkortasunez erabiltzen ditu bitartekotza-estrategiak.		2,5
2	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		2
1,5	☐ Informazioa nahiko argi transmititzen du, baina xehetasun handirik gabe, eta azaletik baloratzen ditu alderdiak. ☐ Informazioa birformulatzen du bitartekotza-estrategiaren bat erabiliz, hartzaileari mezua argitzeko edo ulergarriago egiteko.		1,5
1	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		1
0,5	☐ Zailtasunak ditu informazioa nahiko argi eta zehatz transmititzeko eta ez ditu alderdiak baloratzen, ezta puntu garrantzitsuenak nabarmentzen ere. ☐ Ez du bitartekotza-estrategiarik erabiltzen hartzaileari mezua argitzeko edo ulergarriago egiteko.		0,5
HIZKUNTZAREN ZUZENTASUNA			
2,5	☐ Hiztegi espezifikoa erabiltzen du informazioa zehaztasunez transmititzeko. ☐ Ahoskera eta doinu naturalak ditu, eta informazio adierazgarrienak nabarmentzen ditu. ☐ Kontrol gramatikal ona erakusten du.	☐ Errepertorio lexiko zabala erabiltzen du eta hura zehaztasunez erabiltzeko bezain ongi ezagutzen du. ☐ Gramatika ongi dakiela erakusten du. ☐ Akatsak oso noizbehinka egiten ditu.	2,5
2	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		2
1,5	☐ Informazioa transmititzeko nahikoa den hiztegia erabiltzen du, nahiz eta ez den gauza beti hitz egokia aurkitzeko. ☐ Ahoskera eta doinu egokiak ditu, nahiz eta 1. hizkuntzaren halako eragin bat igartzen zaion. ☐ Kontrol gramatikal ona erakusten du, nahiz eta tarteka oinarrizko akatsak egin.	☐ Errepertorio lexiko zabala erabiltzen du, zehaztugabetasun edo errepikapenen bat gorabehera. ☐ Kontrol gramatikal ona erakusten du, nahiz eta 1. hizkuntzaren halako eragin bat igartzen zaion. ☐ Akatsak egiten ditu, baina ez dute komunikazioa eragozten.	1,5
1	Gaineko zerrendako ezaugarri batzuk eta azpiko zerrendako beste batzuk ditu.		1
0,5	☐ Informazioa transmititzeko hitzak falta zaizkio. ☐ Ahoskeran 1. hizkuntzaren eragin nabarmena du. ☐ Kontrol gramatikal urria erakusten du.	☐ Hiztegi eta egitura oinarrizkoak erabiltzen ditu. ☐ Akatsak etengabe egiten ditu, eta ondorioz testua irakurtzea zaila da.	0,5
0	☐ Ez du betetzen zereginaren helburu komunikatiboa. Ia ez du informaziorik ematen, edo edukia erabat hutsala da.		0
	GUZTIRA	AHOZKO ETA IDATZIZKO BITARTEKOTZA, GUZTIRA _____ /20	GUZTIRA